ERABAKIA, 1996ko martxoaren 27koa, Garraio Azpiegitura zuzendariarena, «BHTko 1. lineako Santutxu eta Basarrateko geltokietan kaipeko erauzketa bidezko aireztaketa instalazioak fabrikatu, hornitu, montatu eta frogak egitea» hornidura kontratua burutzeko lehiaketarako deia egiten duena. 6226

ERABAKIA, 1996ko martxoaren 27koa, Portu eta Itsas Arazoetarako zuzendariarena, «Donostia, Getaria eta Hondarribiko portuak untzi bat erabiliz garbitzeko laguntza teknikoa» burutzeko lehiaketarako deia egiten duena. 6228

ERABAKIA, 1996ko martxoaren 27koa, Portu eta Itsas Arazoetarako zuzendariarena, «Ondarroako portua untzi bat erabiliz garbitzeko laguntza teknikoa» burutzeko lehiaketarako deia egiten duena. 6229

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

### DEFENTSA MINISTERIOA, GIPUZKOAKO ERREKLUTAMENDU ZENTRUA

ZITAZIOA, soldadutzara joateko dena. 6231

RESOLUCIÓN de 27 de marzo de 1996, del Director de Infraestructura del Transporte, por la que se acuerda convocar concurso para la ejecución del suministro de «Fabricación, suministro y montaje y pruebas de las instalaciones de ventilación de extracción bajo anden (E.B.A.) para las estaciones de Santutxu y Basarrate de la línea I del F.M.B.» 6226

RESOLUCIÓN de 27 de marzo de 1996, del Director de Puertos y Asuntos Marítimos, por la que se acuerda convocar concurso para la ejecución de la asistencia técnica de «Limpieza con embarcación de los puertos de Donostia, Getaria y Hondarribia». 6228

RESOLUCIÓN de 27 de marzo de 1996, del Director de Puertos y Asuntos Marítimos, por la que se acuerda convocar concurso para la ejecución de la asistencia técnica de «Limpieza con embarcación del puerto de Ondarroa». 6229

## Otros Anuncios Oficiales

### MINISTERIO DEFENSA, CENTRO DE RECLUTAMIENTO DE GIPUZKOA

CITACIÓN para la incorporación al Servicio Militar. 6231

# Xedapen Orokorrak

### JUSTIZI, EKONOMI, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 1863

65/1996 DEKRETUA, apirilaren 2koa, 1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapenaren eta ondorengo errolda-kudeaketaren estatistika-ustiapenerako eta 1996ko «biztanleriaren eta etxebizitzen estatistika» egiteko arau teknikoak ezartzen dituena.

«Biztanleen udal-errolda», administrazio-ondorioetarako eta udalen kudeaketarako zuzeneko erabilera izateaz gain, biztanleriari buruzko estatistika-datuen iturri ordeztezintzat jotzen du Euskal Autonomi Elkarteak. Estatistika-datu horiek 1996. urtean zehar egingo den errolda-berriztapenaren ondorioz lortuko dira, bai eta ondoren egingo den kudeaketaren bidez ere (udale-

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 1863

DECRETO 65/1996, de 2 de abril, por el que se establecen las normas técnicas para el aprovechamiento estadístico de la renovación del padrón municipal de habitantes de 1996 y de la gestión padronal posterior, así como para la realización de la estadística de población y vivienda de 1996.

El Padrón Municipal de Habitantes, además de su utilidad directa a efectos administrativos y de gestión municipal, es considerado por la Comunidad Autónoma de Euskadi como una fuente insustituible de información estadística sobre la población, tanto como producto de la renovación del Padrón que se va a llevar a cabo en 1996, como de la gestión posterior encaminada a

rrietako biztanle-kopuruak eta horien oinarrizko ezaugarriak etengabe eguneratuta edukitzeko egingo da kudeaketa hori).

Bi lan horietan, udalek, hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek, Euskal Estatistika-Erakundeak eta Estatistika Institutu Nazionalak parte hartzen dute. Euskal Autonomi Elkarteko udal-errolden estatistika-kudeaketa modu bateratuan eta normalizatuan egin nahi da udalerri guztietan, errolda-berriztapenean zein erroldaren etengabeko kudeaketan. Horretarako, nahitaezkoa da errolda-inskripziorako orriaren oinarrizko edukiari eta errolda-fitxategi informatizatuen informazioari buruzko oinarrizko arau batzuk ezartzea, 1993-96 epealdirako Euskal Estatistika-Planari buruzko abenduaren 21eko 8/1993 Legearen eraskinean agertzen den 0153 estatistika burutzeko.

1993-96 epealdirako Euskal Estatistika-Planari buruzko abenduaren 21eko 8/1993 Legeak udal-erroldaren osagarri izango den beste estatistika-eragiketa bat ere ezartzen du, «biztanleriaren eta etxebizitzen estatistika» izenekoa, hain zuzen. Eragiketa horrek xehetasun-maila handiz (espaziala zein analitikoa) jasoko du udal-erroldan jasotzen ez diren gizarte- eta ekonomi arloko beste datu batzuk; izan ere, harreman juridiko publikoetarako nahitaezko diren datuak baino ez baitira jasotzen erroldan. Eragiketa hori, beraz, errolda-berriztapenarekin batera egingo da, eta nahitaezkoa da bi inskripzio horien lanak koordinatzea, bi eragiketa horiek ahalik eta eraginkortasun handienaz egiteko, Estatistika Institutu Nazionalarekiko koordinazioaren eta errolda-berriztapenari buruzko estatu mailako legeriaren kalterik gabe.

Autonomi Estatutuak, bestalde, 10.37 atalean eskumen esklusiboa ematen dio Euskal Autonomi Elkarteari estatistika gaietan; Euskal Autonomi Elkarteko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legeak, berriz, 10. ataletan ezartzen duenez, toki-erakundeek obligazioa dute Euskal Estatistika-Erakundeak eskatzen dizkien datuak emateko.

Ondorioz, Euskal Estatistika-Batzordeak bere irizpena eman ondoren, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko apirilaren 2an egin zuen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Errolda-inskripziorako orrien ereduak.

«Biztanleen udal-erroldaren» berritze-lanetan, gutxienez I. eraskinean agertzen den ereduen edukira eta formara egokituta dauden errolda-inskripziorako orriak erabiliko dituzte udal guztiek. Eredu horretara hertsiki egokitzen diren orriak Euskal Estatistika-Erakundeak argitaratuko ditu. Berriztapenaren ondorengo errolda-kudeaketa egiteko, berriz, oinarrizko edukiak biltzen

tener permanentemente actualizadas las cifras de población de los municipios y sus características básicas.

En ambos trabajos participan los Ayuntamientos, las Diputaciones Forales de los tres Territorios Históricos, el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística y el Instituto Nacional de Estadística. Para la explotación estadística de los Padrones Municipales de todos los Municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que se pretende que sea uniforme y normalizada tanto en la renovación como en la gestión continua del Padrón, es necesario que se establezcan unas normas técnicas que afecten al contenido básico de la Hoja de Inscripción Padronal y a la estructura de la información de los ficheros padronales informatizados, con la finalidad de hacer posible la estadística 0153 contenida en el Anexo de la Ley 8/1993, de 21 de diciembre, del Plan Vasco de Estadística 1993-96.

La Ley 8/1993, de 21 de diciembre, del Plan Vasco de Estadística de 1993-96, establece una operación estadística complementaria a la renovación del Padrón Municipal, denominada «Estadística de Población y Viviendas», que recoge con un gran nivel de detalle, ya sea espacial o analítico, aquellas informaciones de carácter socioeconómico, que no se recogen en el Padrón Municipal al circunscribirse éste a los datos estrictamente necesarios para las relaciones jurídicas públicas. Esta operación, por tanto, coincide con la renovación padronal, por lo que es necesario coordinar los trabajos relativos a ambas inscripciones, al objeto de racionalizar la realización conjunta de ambas operaciones, sin perjuicio de la coordinación con el Instituto Nacional de Estadística y de la legislación estatal en relación a la renovación padronal.

Por otra parte, el Estatuto de Autonomía en su artículo 10.37 atribuye a la Comunidad Autónoma de Euskadi competencia exclusiva en materia de estadística y la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi en su artículo 10 establece que las Entidades Locales están obligadas a facilitar los datos requeridos por Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística, además de prever un sistema de suministro de información para su utilización en actividades estadísticas concretas.

En su virtud, previo informe de la Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística, a propuesta del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de abril de 1996,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Modelos de Hojas de inscripción padronal.

En la renovación del Padrón Municipal de Habitantes, todos los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi utilizarán Hojas de Inscripción Padronal que se ajusten como mínimo al contenido y la forma de los modelos que figuran en el Anexo I. Las Hojas que respondan estrictamente a este modelo serán editadas por el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de

dituen galdesorta bat diseinatu da.

*2. atala.–* Galdesortak banatzea eta jasotzea.

«Biztanleriaren eta etxebizitzaren estatistikaren» galdesorta eta errolda-inskripziorako orria biak batera banatuko eta jasoko dituzte udalek, eta, horretarako langile berak erabiliko dituzte.

«Biztanleriaren eta etxebizitzen estatistikaren» galdesortan biltzen den informazioa estatistika-sekretuaren babespean egongo da, Euskal Autonomi Elkarteko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legearen 19. ataletan ezarritakoaren arabera.

*3. atala.–* Udalek nola erabiliko dituzten landako lanetarako langileak.

Udalek, bere kabuz edo kasuan kasuko foru-aldundiaren bidez, egokitzat jotzen duten agente-kopurua zehaztuko eta, egoki bada, kontratatuko dute. Agente horiek arduratuko dira, hain zuzen, «biztanleriaren eta etxebizitzen estatistikaren» galdesortak eta errolda-inskripziorako orriak banatzeaz eta jasotzeaz. Era berean, agente bat baino gehiago duten udalerrietan, beharrezko jotzen duten taldeko arduradunen kopurua kontratatu ahal izango dute udalek, eta horien egitekoa euren ardurapeko agenteen lana kontrolatzea eta ikuskatzea izango da.

*4. atala.–* Euskal Estatistika-Erakundeak nola kontratatuko dituen landako lanetarako langileak.

6 sekzio baino gutxiagoko udalerrietan, Euskal Estatistika-Erakundeak ikuskatzaile bat kontratatuko du 7 sekzio bakoitzeko, eta, horretarako, udalerriak behar bezala taldekatuko ditu. Gainerako udalerrietan, Euskal Estatistika-Erakundeak ikuskatzaile bat kontratatuko du taldeko 6 arduradun bakoitzeko, eta hori arduratuko da informazio-bilketa koordinatzeaz eta gainbegiratzeaz.

*5. atala.–* Estatistika-sekretua gordetzeko betebeharra.

«Biztanleriaren eta etxebizitzen estatistikaren» informazio-bilketan parte hartzen duten langile guztiak Euskal Autonomi Elkarteko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean estatistika-sekretuaren alorrean ezarritakoaren menpe geratuko dira.

*6. atala.–* Udalentzako dirulaguntzak.

Euskal Estatistika-Erakundeak sei sekzio edo gehiago eta taldeko arduraduna duten udalei diruz lagunduko die: 120 pezeta emango die etxebizitza okupatu bakoitzeko eta 25 pezeta etxebizitza huts bakoitzeko, baldin eta etxebizitza horiei dagozkien «biztanleriaren eta etxebizitzen estatistikaren» galdesortak eta errolda-inskripziorako orriak behar bezala betetzen badira, taldeko arduradunen eta ikuskatzaileen eskuliburuetan ezarritako irizpideen arabera. Dirulaguntzaren zenbatekoa betetze-lan hori egiaztatu ondoren ordainduko da, eta ordainketa bakarrean emango da.

Estadística. Para la gestión padronal posterior a la renovación se ha diseñado un cuestionario con los contenidos básicos según los modelos que figuran en el Anexo II.

*Artículo 2.–* Entrega y recogida de los cuestionarios.

Los Ayuntamientos realizarán la entrega y recogida conjunta del cuestionario de la Estadística de Población y Vivienda y de la Hoja de inscripción padronal, por medio del mismo personal.

La información contenida en el cuestionario de la «Estadística de Población y Vivienda» estará sometida al secreto estadístico en los términos establecidos en el artículo 19 de la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 3.–* Disponibilidad del personal para el trabajo de campo por parte de los Ayuntamientos.

Los Ayuntamientos por medios propios o a través de la correspondiente Diputación Foral, determinarán, y contratarán en su caso, el número de agentes que estimen oportuno, los cuales se encargarán de la entrega y recogida del cuestionario de la Estadística de Población y Vivienda y de la Hoja de inscripción padronal. De la misma forma, en los municipios con varios agentes, los Ayuntamientos podrán contratar el número de encargados de grupo que estimen necesario, teniendo como misión el control y la inspección de los trabajos de los agentes a su cargo.

*Artículo 4.–* Contratación del personal para el trabajo de campo por parte del Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

En los municipios de menos de 6 secciones el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística contratará a un inspector por cada 7 secciones, agrupando los municipios convenientemente. En el resto de municipios el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística contratará a un inspector por cada 6 encargados de grupo que se encargará de coordinar y supervisar la recogida de información.

*Artículo 5.–* Deber de guardar secreto estadístico.

Todo el personal que participe en la recogida de información de la Estadística de Población y Vivienda quedará sometido en materia de secreto estadístico a lo establecido en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo 6.–* Subvenciones a los Ayuntamientos.

El Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística subvencionará a los Ayuntamientos que tengan seis o más secciones y cuenten con encargados de grupo, con 120 pesetas por cada vivienda ocupada y con 25 pesetas por cada vivienda desocupada, cuyos cuestionarios de la Estadística de Población y Vivienda y Hoja de Inscripción Padronal hayan sido cumplimentados satisfactoriamente, según los criterios fijados en los Manuales de los Encargados de Grupo y de los Inspectores. El importe de la subvención, que se hará en un solo pago, se efectuará una vez comprobado dicho cumplimiento.

*7. atala.–* Errolda-berriztapenaren informazioa kodetzea.

Euskal Autonomi Elkarteko udalerri guztietako «biztanleen udal-erroldaren» informazioa kodetzeko, Euskal Estatistika-Erakundeak mekanizazio-lanak egingo dituzten erakunde guztiei helaraziko dien kodeliburua erabiliko da.

*8. atala.–* Errolda-berriztapenaren informazioa euskarri magnetikoan bidaltzea.

1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapeneko mekanizazio-lanez arduratzen diren erakundeek errolda horretan biltzen den informazioaren kopia bat euskarri magnetikoan bidaliko diote Euskal Estatistika-Erakundeari, Errolda Kudeatzeko Eskuliburuan agertzen diren grabazio-arauen eta -erregistroen arabera.

*9. atala.–* Errolda-berriztapenaren informazioaren edukia eta egiaztapena.

1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapenari buruz euskarri magnetikoan jasotzen den informazioa udalerri bakoitzeko biztanle guzti-guztiei buruzkoa izango da, biztanle horien egoitza-egoera alde batera utzita, hau da, bertan zein kanpoan dauden egoiliarrei eta pasadizokoei buruzkoa, nahiz eta azken horiek zenbakiz baino ez diren agertuko. Informazio hori «biztanleen udal-erroldaren» berriztapena betetzeko eta kodetzeko arauak kontuan izanik egiaztatuko da.

*10. atala.–* Errolda-berriztapenaren informazioa bidaltzeko epea.

1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapenaren informazioa eskuratu ahala bidaliko da euskarri magnetikoan Euskal Estatistika-Erakundeara; edozein kasutan, 1996ko abenduaren 31a baino lehen.

*11. atala.–* Udaleko biztanle-kopuruak bidaltzea.

Udalbatzarrak onartu eta bi aste igaro baino lehen bidaliko dizkiote udalek Euskal Estatistika-Erakundeari udaleko biztanle-kopuruak.

*12. atala.–* Errolda-berriztapenaren estatistika-ustiapena.

Euskal Estatistika-Erakundeak 1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapenetik ondorioztatzen diren datuen estatistika-ustiapena egingo du.

*13. atala.–* «Udal-erroldaren» ondorengo kudeaketa.

1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapenaren ondorengo kudeaketari dagokionez, Errolda Kudeatzeko Eskuliburuan bajei (bi aldiz edo gaizki sartutakoei) eta altei (ez sartutakoei) buruz agertzen diren jarraipideak kontuan izango dituzten udalek. Eskuliburu hori Euskal Estatistika-Erakundeak bidaliko die udalei, datuen estatistika-ustiapena ziurtatzearren.

*Artículo 7.–* Codificación de la información de la renovación padronal.

La codificación de la información del padrón Municipal de Habitantes de todos los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi se hará de acuerdo con el Libro de códigos que el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística hará llegar a cada una de las Instituciones que van a llevar a cabo la mecanización.

*Artículo 8.–* Envío de la información de la renovación padronal en soporte magnético.

Las Instituciones encargadas de la mecanización de la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996 remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística copia en soporte magnético de la información contenida en el mismo, de acuerdo con las Normas y Registro de Grabación que aparece en el Manual de Gestión Padronal.

*Artículo 9.–* Contenido y verificación de la información de la renovación padronal.

La información recogida en soporte magnético de la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996 estará referida a la totalidad de los habitantes de cada Municipio independientemente de su situación de residencia, es decir, tanto los residentes presentes o ausentes como para los transeúntes, si bien estos últimos figurarán sólo en forma numérica. Esta información estará verificada de forma que satisfaga las normas de cumplimentación y de codificación de la renovación del Padrón Municipal de Habitantes.

*Artículo 10.–* Plazo de entrega de la información de la renovación padronal.

La entrega de la información de la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996 en soporte magnético al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística se efectuará en cuanto esté disponible y, en todo caso, antes del 31 de diciembre de 1996.

*Artículo 11.–* Envío de las cifras de la población municipal.

Los Ayuntamientos remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística las cifras de la población municipal, antes de transcurridas dos semanas de su aprobación por el Pleno.

*Artículo 12.–* Explotación estadística de la renovación padronal.

El Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística realizará y publicará una explotación estadística de los datos derivados de la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996.

*Artículo 13.–* Gestión posterior del Padrón Municipal.

En la gestión padronal posterior a la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996, los Ayuntamientos tendrán en cuenta las instrucciones relativas a los cambios de domicilio, las bajas por duplicados e inclusiones indebidas y las altas por omisiones, que figuran en el correspondiente Manual de Gestión padronal que les será facilitado por el Euskal Estatisti-

*14. atala.–* «Udal-errolda» urte bakoitzeko abenduaren 31n.

1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapena egin eta ondorengo urteetan, udalek abenduaren 31ri buruzko «udal-erroldaren» fitxategia bidaliko diote Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística-ri, eta fitxategi hori urtean zehar egindako errolda-kudeaketaren bidez eguneratua egongo da. Urte bakoitzeko abenduaren 31ri buruzko «udal-erroldaren» fitxategia Errolda Kudeatzeko Eskuliburuan agertzen diren grabazio-arauen eta -erregistroen arabera bidaliko dute udalek.

*15. atala.–* Urte bakoitzeko errolda-mugimenduak biltzen dituen fitxategia.

1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapenaren ondorengo urteetan, urte horretan izan diren errolda-mugimenduak biltzen dituen fitxategia bidaliko diote Euskal Estatistika–Erakundea/Instituto Vasco de Estadística-ri. Udal erroldako pertsonetan eta etxebizitzetan izandako aldaketak joko dira errolda-mugimendutzat. Urteko errolda–mugimenduen fitxategia Errolda Kudeatzeko Eskuliburuan agertzen diren grabazioarauen eta -erregistroen arabera bidaliko dute udalek.

*16. atala.–* Urte bakoitzeko errolda-mugimenduen zenbakizko laburpenak.

1996ko «biztanleen udal-erroldaren» berriztapena egin eta ondorengo urteetan, udalek errolda-mugimenduen zenbakizko laburpenak (zentsu-sekzioen arabera eginak) eta zentsu-sekzioen osaketaren aldaketak bidaliko dizkiote Euskal Estatistika-Erakundeari. Urte bakoitzeko zenbakizko laburpenei buruzko dokumentuak eta zentsu-sekzioetako aldaketak Errolda Kudeatzeko Eskuliburuan agertzen diren grabazio-arauen eta -erregistroen arabera bidaliko dituzte udalek.

*17. atala.–* Urte bakoitzeko fitxategiak eta dokumentuak bidaltzeko epea.

13., 14. eta 15. ataletan aipatu diren fitxategiak eta dokumentuak, era berean, bidali beharreko fitxategien eta dokumentuen erreferentzi dataren hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen bidaliko dira.

*18. atala.–* Eskuliburuak.

Taldeko arduradunen eta ikuskatzaileen eskuliburuak eta Errolda Kudeatzeko Eskuliburua Euskal Estatistika-Erakundeak egingo ditu, eta aipatzen dituzten lanak hasi aurretik bidaliko zaizkie dagozkien erakundeei. Errolda Kudeatzeko Eskuliburua egiterakoan, Estatistika Institutu Nazionalak eskuliburu horretan agertzen diren fitxategiak eta datuak bidaltzeko ezartzen dituen arauak eta jarraipideak kontuan hartuko dira, baldin eta horrelakorik ezartzen badu, udalek egiten dituzten bidalketak bateratzearren.

ka-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística con el fin de asegurar su posterior aprovechamiento estadístico.

*Artículo 14.–* Padrón Municipal a 31 de diciembre de cada año.

En los años posteriores a la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996, los Ayuntamientos remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística el fichero del Padrón Municipal referido a 31 de diciembre de cada año, actualizado como resultado de la gestión padronal durante el año. El fichero del Padrón Municipal a 31 de diciembre de cada año se remitirá por los Ayuntamientos de acuerdo con las Normas y Registros de Grabación que aparecen en el Manual de Gestión Padronal.

*Artículo 15.–* Fichero con los movimientos padronales de cada año.

En los años posteriores a la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996, los Ayuntamientos remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística el fichero con los movimientos padronales ocurridos durante ese año. Por movimientos padronales se entiende las alteraciones producidas en el Padrón Municipal tanto de las personas como de las viviendas. El fichero de los movimientos padronales del año correspondiente se remitirá por los Ayuntamientos de acuerdo con las Normas y Registros de Grabación que figuran en el Manual de Gestión Padronal.

*Artículo 16.–* Resúmenes numéricos de los movimientos padronales de cada año.

En los años posteriores a la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1996, los Ayuntamientos remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística resúmenes numéricos por secciones censales de los movimientos padronales y las alteraciones en la configuración de las secciones censales. La documentación de los resúmenes numéricos y cambios en las secciones censales de cada año se remitirán por los Ayuntamientos de acuerdo con los Modelos de Documentos que aparecen en el Manual de Gestión Padronal.

*Artículo 17.–* Plazo de entrega de los ficheros y documentación de cada año.

El envío de los ficheros y documentos citados en los Artículos 13, 14 y 15 se efectuará antes del 28 de febrero del año siguiente al que se refieran los ficheros y documentos a enviar.

*Artículo 18.–* Manuales.

Los Manuales de los encargados de grupo y de los inspectores, así como el Manual de Gestión Padronal serán elaborados por el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística y entregados a las correspondientes Instituciones antes del comienzo de los trabajos a que hacen referencia. En la elaboración del Manual de Gestión Padronal se tendrán en consideración las normas e instrucciones que, en su caso, establezca el Instituto Nacional de Estadística, con el fin de unificar los envíos que realicen los Ayuntamientos respecto de los ficheros y datos previstos en el citado Manual.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Araubidezko garapena.

Dekretu honen garapenerako beharrezkoak diren xedapenak agintzeko ahalmena ematen zaio Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari.

*Bigarrena.*– Indarrean jartzea

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko apirilaren 2an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte
Segurantza sailburua,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social para que dicte cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de abril de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 1864

AGINDUA, 1996ko martxoaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoetan zuzendari izateko egiaztatzeko modua arautzeari buruzko abenduaren 28ko 2192/1995 Errege Dekretua garatzen duena.

Abenduaren 28ko 2192/1995 Errege Dekretuak garatzen du Ikastetxeen Partaidetza, Ebaluazio eta Gobernuari buruzko azaroaren 20ko 9/1995eko Lege Organikoa. Lege Organiko horrek ikastetxe publikoen zuzendariak aukeratzeko sistema berria ezartzen du. Sistema horren arlo garrantzitsuenek Hezkuntzarako Eskubideari buruzko urriaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak jasotzen zituen modeloei eusten badiete ere, berrikuntzetako bat zera da, funtzio garrantzitsu horretara heltzen direnek erantzukizun guztiak hartzeko nahiko prestatuta egon daitezen ziurtasun handiagoa eskatzea. Sistema berri horren elementu nagusia baldintza batzuk eskatzen direla da; horien artean, zuzendari posturako hautagai izan nahi dutenek egiaztagiri zehatza eskuratu beharra dutela da garrantzitsuena.

Beste alde batetik, aipatutako Errege Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du: hezkuntzari buruzko aginpideak erabiltzen ari diren autonomi elkarteetan, leku horietan irakasle diren eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 4ko 1/1990 Lege Organikoak jasotzen dituen kidego edo eskaletan dauden funtzionarioei aplikatuko zaie aipatutako Errege Dekretua, osa-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 1864

ORDEN de 28 de marzo de 1996, por la que se desarrolla el Real Decreto 2192/1995 de 28 de diciembre, por el que se regula la acreditación para el ejercicio de la dirección en los centros docentes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, de la Participación, la Evaluación y el Gobierno de los Centros Docentes, desarrollada por el Real Decreto 2192/1995, de 28 de diciembre, establece un nuevo sistema para la elección de los Directores de los centros docentes públicos que, conservando en sus principales aspectos el modelo que contenía la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de octubre, del Derecho a la Educación, introduce como una de sus novedades una mayor exigencia en cuanto a la garantía de que quienes accedan a esta importante función estén suficientemente formados para poder asumir todas sus responsabilidades. Elemento esencial de este nuevo sistema es la exigencia de una serie de requisitos, entre los que adquiere especial relevancia la obligación de obtener una acreditación específica por quienes deseen ser candidatos a la elección de Director.

Por otra parte la Disposición Adicional Primera del mencionado real Decreto establece que en las Comunidades Autónomas que se encuentran en el pleno ejercicio de las competencias en materia de educación, el citado Real Decreto es de aplicación, con carácter supletorio, a los funcionarios docentes con destino en ese ámbito que pertenezcan a los cuerpos o escalas a que se refiere la Ley Orgánica 1/1990, de 4 de octubre, de